



**2017KO UZTAILAREN 28KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko uztailaren hogeita zortzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide eta Joseba Imanol Aran Barandiaran.

Marian Zufiria Apeztegia zinegotzia ez da bertaratu, aurrez ohartarazi zuelarik bere ezin etorria.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko uztailaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 72 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA BI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA BAT EURO ETA BI ZENTIMO (62.541,02 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZKO ENERGIA ELERTRIKOAREN HORNIDURARAKO KONTRATAZIOARI ATXIKIPENA.-**

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, energia elektrikoaren hornikuntza kontratatzeko kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek hornikuntza hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, zera erabakitzen du:

- 1.- Atxikitzea energia elektrikoaren hornidurarako esparru akordioaren kontratazio espedienteari. Espediente hori Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak izapidetuko du, 2011ko martxoaren 17ko Udal Batzarrak onartutako atxikipen hitzarmenean ezarritako

termino eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuan jasotako arauei jarraituz.

- 2.- Baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, erakunde honen kontsumo elektrikoaren datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientea arautuko duten baldintza agirietan jaso ahal izateko.
- 3.- Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria sinatzeko, Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

#### IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

